XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–*

Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren egitura organikoa onartu zuen lehendakariaren urriaren 16ko 28/2001 Dekretuko bigarren xedapen gehigarria berriro idatzi da. Honela geratu da:

«*Bigarrena.–* Funtzionalki Lehendakariordetzako Idazkaritza Nagusiaren menpe egonik, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak beharrezkoa den administrazio euskarria eskainiko du Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako organoen jardunerako eta alderdi hauei dagozkien eginkizunak beteko ditu: langileak, kontratazioa, baliabide material eta informatikoen hornidura eta ekonomi aurrekontuen kudeaketa. Bereziki, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren kontratazio organoari dagozkion ahalmenak izango ditu, kontratuaren hasierako aurrekontua 150.000 eurotik gorakoa ez den kasuetan, eta Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren gastua baimenduko du.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DISPONGO:

*Artículo único*

Se da una nueva redacción a la Disposición Adicional segunda del Decreto 28/2001, de 16 de octubre, del Lehendakari, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno, que queda redactado de la siguiente manera:

«Bajo la dependencia funcional de la Secretaría General de la Vicepresidencia, la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública ejercerá las funciones y prestará el soporte administrativo necesario para los órganos de la Vicepresidencia del Gobierno en materia de personal, contratación, provisión de medios materiales e informáticos y gestión económico – presupuestaria. En particular, ejercerá las facultades correspondientes al órgano de contratación de la Vicepresidencia del Gobierno en relación con aquellos contratos cuyo presupuesto inicial no supere los 150.000 euros y autorizará el gasto de la Vicepresidencia del Gobierno».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria–Gasteiz, a 5 de noviembre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

## Zk-6523

268/2002 DEKRETUA, azaroaren 5ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzeari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezarri ziren urriaren 16ko 221/2001 Dekretuaren bidez. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari egozten zaio, dekretu horretan, gastuetarako baimena emateko eskuduntza, horretarako era Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen Bateratutako Testua onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuan ezarritakoa delarik.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

## N°-6523

DECRETO 268/2002, de 5 de noviembre, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

Mediante el Decreto 221/2001, de 16 de octubre, se estableció la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública. En dicha disposición la competencia para la autorización del gasto se atribuye a la Consejera de Hacienda y Administración Pública, en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el texto refundido de las Disposiciones Legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi.

Honako hau ezartzen du Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko Legearen 113.2 artikuluak: «2.– Dena dela, Jaurlaritzak, sailen egitura organikoa garatuko duten dekretuen bidez, kasuan kasuko saileko beste organo batzuen esku utzi ahal izango ditu, aurreko lerroaldiarekin bat, sailburuarenak diren aginpideak.»; eta gastuetarako baimena emateko eskuduntza 111.2.a artikuluan dago jasota. Legearen araberako habilitazio horretaz baliatuz, eta eurenganaturik dituzten eginkizunak betez sail horretako zenbait organok jarduera pila bat garatzen dituztela ikusita, beharrezkoa da gastuetarako baimen-eskuduntza Ogasun eta Herri Administrazio Saileko beste organo batzuei egoztea, administrazio kudeaketaren funtzionamendua errazteko.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, aldez aurretik lehendakariak onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko azaroaren 5ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Erredakzio berria izango du, aurrerantzean, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 16ko 221/2001 Dekretuaren 6. artikuluko 1. paragrafoaren c) idatz-zatiak, honako hau alegia:

«c) Kontratazio Organoa izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Kontratazio Araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluan eta Informazio eta Telekomunikazio Sistemen Egitekoak eta Kudeaketa-Modalitateen Planifikazioa, Eraketa eta Banaketa arautu zituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuko 6. artikuluan beren beregi Ogasun eta Herri Administrazio Sailari izendatutako eskumenen ondorioz egiten diren kontratazio-espedienteetan. Baimena ematea, halaber, horiek eragindako gastuetarako, baldin eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren konturakoak badira.»

***Bigarren artikulua.***– Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 16ko 221/2001 Dekretuaren 10. artikuluari n) letra gehituko zaio, honako erredakzioa izango duena:

«n) Sailaren gastuetarako baimena ematea, ez bada eskuduntza hori saileko beste organoren bati egotzitakoa dela dekretu honetan».

La propia Ley de Régimen Presupuestario de Euskadi establece en su artículo 113.2 la posibilidad de que los decretos que desarrollen la estructura orgánica de los Departamentos atribuyan a otros órganos del Departamento correspondiente las competencias que les corresponden a las personas titulares de los mismos, entre las que se contempla en el artículo 111.2.a) la autorización del gasto. En ejercicio de la referida habilitación legal y a la vista del importante volumen de actuaciones que desarrollan los distintos órganos del Departmento citado en cumplimiento de las funciones que tiene asignadas, se hace necesario atribuir la competencia para la autorización del gasto a otros órganos del Departamento de Hacienda y Administración Pública con el fin de facilitar el funcionamiento de la gestión administrativa.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación de Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 5 de noviembre de 2002,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se da una nueva redacción a la letra c) del apartado 1 del artículo 6 del Decreto 221/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, que queda redactado de la siguiente manera:

« c) Actuar como órgano de contratación en los expedientes de contratación derivados de las competencias atribuidas específicamente al Departamento de Hacienda y Administración Pública en el Capítulo V del decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y en el artículo 6 del Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones, así como autorizar el gasto derivado de los mismos que deba realizarse con cargo al presupuesto del Departamento de Hacienda y Administración Pública.»

***Artículo segundo.***– Se añade una nueva letra n) al artículo 10 del Decreto 221/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública, con la siguiente redacción:

«n) Autorizar el gasto del Departamento, excepto en los supuestos en que dicha competencia venga atribuida a otro órgano de este Departamento en el presente Decreto.»

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko azaroaren 5ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria–Gasteiz, a 5 de noviembre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

## Zk-6524

AGINDUA, 2002ko urriaren 14koa, Jaurlaritzako lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Jaurlaritzako lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua denaren 2002ko ekainaren 11ko Aginduko II. eranskina gehitzen duena. Agindu honen bidez, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta honi atxikita dauden Erakunde Autonomoetako langileen datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dira.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluak xedatzen du: administrazio publikoen fitxategiak sortu, aldatu edo kendu Estatuko Aldizkari Ofizialean edo beste aldizkari ofizialen baten argitaratutako xedapen orokorrez baino ezingo direla egin.

Jaurlaritzako lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua denaren 2002ko ekainaren 11ko Aginduz xedapen bakar batean arautu ziren Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta honi atxikita dauden Erakunde Autonomoetako langileen datu pertsonalen fitxategiak.

KZgunea proiektua —trebakuntzarako eta Internet erabiltzeko dohaineko zentroen sarea— abian jartzeak, ostera, datu pertsonalen fitxategi berri bat sortzea ekarri du, zentro horietako erabiltzaile eta tutoreei buruzko argibideak erregistratzeari dagokiona hain zuzen ere. Horren eraginez gehitu egin behar da Jaurlaritzako lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua denaren 2002ko ekainaren 11ko Aginduz arautitako fitxategien zerrenda.

Horren ondorioz, honako hau

## N°-6524

ORDEN de 14 de octubre de 2002, de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se amplía el Anexo II de la Orden de 11 de junio de 2002, de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se regulan los ficheros de datos de carácter personal de la Vicepresidencia del Gobierno, del Departamento de Hacienda y Administración Pública y los Organismos Autónomos adscritos al mismo.

El artículo 20.1 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, dispone que la creación, modificación o supresión de los ficheros de las Administraciones públicas sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el Boletín Oficial del Estado o Diario oficial correspondiente.

A estos efectos, la Orden de 11 de junio de 2002, de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, procedió a regular en una sola disposición todos los ficheros de datos de carácter personal bajo la dependencia de la Vicepresidencia del Gobierno, del Departamento de Hacienda y Administración Pública y de los Organismos Autónomos adscritos al mismo.

Sin embargo, la puesta en marcha del proyecto KZgunea, una red de centros gratuitos de formación y uso de internet, ha implicado la creación de un fichero de datos de carácter personal que obedece al registro de la información relativa a los usuarios y tutores de dichos centros, lo que, en última instancia, obliga a ampliar la relación de ficheros regulados por la referida Orden de 11 de junio de 2002, de la Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública, incorporando y regulando este nuevo fichero.

En virtud de lo expuesto,